

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUIAKO UDALA

#### 2026rako Zuia udalerriko kultura, kirol eta gizarte elkarteentzako dirulaguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak

Udal osoko bilkurak 2026ko apirilaren 16an egindako saioan honako hau erabaki zuen, beste batzuen artean:

– Honako arlo hauetan dirulaguntzak emateko deialdia eta dirulaguntza horien oinarri arautzaileak onartzea: 2026erako Zuia udalerriko kultura, kirol eta gizarte elkarteentzako dirulaguntza.

– Erabaki honen bidez araututako diru-laguntzak 2026ko gastuen aurrekontuko 341.481.000 y 334.481.000 partidaren kargura ordaintzea.

– Deialdi horiek ALHAOn argitaratzea.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegi egokian (txandaren arabera), eta horretarako bi hileko epealdia egongo da erabakia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Dena den, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio argitaratutako berariazko ebazpena eman duen organoari, eta horretarako hilabeteko epealdia egongo da hura argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Murgian, 2026ko maiatzaren 6an

*Alkate-udalburua*

*UNAI GUTIÉRREZ URKIZA*

### ZUIA UDALERRIKO KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ELKARTEENTZAKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK, 2026. URTEA

#### 1. Deialdiaren xedea

Zuiako udalerrian, kultura, kirol eta gizarte arloko jarduerak antolatzeko dirulaguntzak ematen laguntzea, aurrekontu-mugen barruan, eta helburu batzuk zehaztea, herritarrei, baldintza berdinetan, prestazio horiek jasotzeko aukera bermatzeko, udalaren eskumenekoak diren zerbitzuak eta jarduerak osatzeko edo ordezteko.

#### 2. Erakunde onuradunak

Dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke irabazi-asmorik gabeko elkarte, kultur elkarte, kirol elkarte eta elkarte publiko eta pribatuak, baldin eta legez eratuta/erregistratuta badaude eta egoitza soziala Zuiako udalerrian badute.

#### 3. Diruz lagundu daitezkeen programak

Diruz lagunduko dira, lehentasunez, Zuiako udalerrian kultura, aisia, euskara, kirola eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna arloetan garatzen diren programa edo proiektuak, honako hauei lehentasuna emanez:

– Zuiako udalerrian gizarte-ongizatea sustatzea, bai eta gizarte-egoera ahulean edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboen parte-hartzea eta gizarteratzea babestea eta bermatzea ere.

- Udalerriaren sustapen-lana egitea.
- Herritarren parte-hartzea eta tokiko tradizioak berreskuratzea sustatzea.
- Euskararen erabilera bultzatuko duten eta kulturaz, aisialdiaz eta kirolaz gozatzea sustatuko duten programak lantzea, modu irisgarrian.
- Emakumeen ikusaraztea eta parte-hartzea sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko programak eta/edo ekintzak egitea.
- Kirola, oro har, eta bertako kirola, bereziki, hedatzeko eta sustatzeko jarduerak barne hartzen dituztenak.
- Kirola egitea erraztuko duten jarduerak diseinatzea.
- Kultura-aniztasuna kontuan hartzea eta pertsonen arteko tolerantzia sustatzea.

#### **4. Aurrekontu-kreditua**

Kultura eta gizarte elkarreentzako aurrekontu-partida 334.481.000 zenbakiduna da (29.000,00 euro), eta kirol elkarreentzako, berriz, 341.481.000 zenbakiduna (26.000,00 euro), Zuiako Udalaren 2026ko ekitaldiko gastu-aurrekontutik aterata.

#### **5. Dirulaguntzen zenbatekoa**

Udalak, gehienez ere, programaren aurrekontu osoaren ehuneko 50 lagundu ahal izango du diruz.

Hala ere, udal honek izapidetze berezia egin ahal izango du udalaren interes berezikoak diren programa jakin batzuetarako, eta programaren kostuaren ondoriozko defizitaren ehuneko 100era iritsi ahal izango da.

Orain deitutako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu bererako emandako beste edozein dirulaguntzarekin, eta ezin izango da inola ere finantzaketa gainditu, hau da, beste erakunde batzuekin batera diruz lagundutako guztizko zenbatekoak ezin izango du gainditu jardueraren guztizko kostua. Dirulaguntzen konkurrentziagatiko finantzazioaren gaineko kasuren bat gertatuz gero, erakunde onuradunak Zuiako Udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du, finantzatutako guztizkoaren aldean emandako zenbatekoaren proportzioan.

Dirulaguntzen zenbaketa osoak ezin izango du gainditu Zuiako Udalaren aurrekontu orokorreko helburu horietarako aurrekontu-partidetan esleitutako zenbatekoa.

Egindako eskaeren eta aurrekontu-partidaren zuzkiduraren arabera aztertuko da zenbatekoa.

Dirulaguntzaren ordainketa aldez aurretik egin ahal izango da, onuradunak jarduera garatzeko ezinbesteko finantzaketa izanez gero, 12. oinarrian ezarritako baldintzetan egin behar duen justifikazioa egin aurretik.

#### **6. Eskabideak aurkeztea**

1. Eskabideak eta zazpigarren oinarrian eskatutako agiriak aurkezteko epea ekaineko azken lanegunerarte izango da. Interesa duten erakundeek 2025/2026 ikasturtean egin nahi dituzten jardueren programa/proiektua aurkeztuko dute. Elkarre guztiek ezarritako epean aurkeztu beharko dute eskabidea.

2. Unean uneko eta/edo ezohiko jarduera edo programetarako, programatutako jarduera hasi baino hilabete lehenago aurkeztuko dira. Edonola ere, mugaeguna urte horretako azaroaren 19a izango da.

3. Eskabidea eta dokumentazioa, ahal dela, Zuiako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez entregatuko dira, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 14.2.a artikuluan xedatutakoaren arabera, eta, nahikoa baliabide ez badute, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

4. Udalak emandako eskabide ofiziala eta inprimakia (I., II., III. eta IV. eranskinak). Bertan, proiektuak eta programak jasoko dira, baita diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak ere.

5. Dirulaguntza hauek jasotzeko eskabideak aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea.

6. Ezin izango dute dirulaguntzarik eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluari aipatzen diren arau-hausteengatik zehapena jaso duten erakundeek.

## 7. Dokumentazioa

Estatutuen fotokopia eta legez eratuta eta elkarteen eta erakundearen erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa. Salbuetsita daude lehenago aurkeztu zituzten erakundeak, aldaketarik egon ezean, eta toki-erakunde txikiak direnak.

Gizarte Segurantzarekin eta ogasunarekin dituen zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria edo horiek eskatzeko Udalarari emandako baimena, eskaera-ereduaren arabera.

Udalak interesdunei eskatuko die hamar eguneko gehieneko epe luzaezinean konpon ditzatela antzemandako arazoak, eta adieraziko die, hala egiten ez badute, eskabidean atzera egin dutela ulertuko dela, bestelako izapiderik egin gabe.

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa) eta Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, erakunde eskatzaileei ohartarazten zaie aipatutako dokumentazioaren zati gisa emandako datuak oinarri hauek arautzen dituzten urteko deialdiaren dirulaguntza emateko prozeduran soilik erabiliko direla.

## 8. Dirulaguntzak emateko irizpideak

8.1. Laguntzen zenbatekoa finkatzeko, eskabidean jasotako datuak baloratuko dira.

8.2. Dirulaguntzak zehazteko eta horien zenbatekoa finkatzeko balorazio-irizpideak, laugarren oinarrian ezarritako mugei kalterik egin gabe, honako hauek izango dira:

8.2.1. Kultura, kirol edo gizarte-izaerako programa/proiektuetarako irizpideak honako hauek izango dira:

– Programan parte hartzen duten pertsonen edo aurreikuspenen arabera. Sexuaren arabera berezita.

– Jarduerak irauten duen egun kopurua edo udalerrian egiten den jardunaldi kopurua (ikastaroak, txapelketak, hitzaldiak, emanaldiak, etab.).

– Autofinantzaketa. Proiektua aurreikusitako finantzaketan oinarrituta egitea bideragarria den.

– Programaren gastu konputagarriak.

– Euskara sustatzea.

– Udalerriko emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea.

– Proiektuaren izaera berritzailea ikuspegi inklusibotik.

– Entitatearekin partehartze komunitarioa.

Gastu konputagarrien aurrekontuaren arabera, bakoitzak jarduera garatzeko duen beharra baloratuko da. Puntuak kalkulatzeko soilik, gastu konputagarritzat joko dira taula honetan agertzen direnak:

DIRUZ LAGUNGARRI DIREN GASTU KONPUTAGARRIAK	EHUNEKOA
Begiraleak-entrenatzaileak-hizlariak-gidak-kirol epaileak	100
Materiala, espazioak etab. alokatzea	100
Ekintzak, argitalpenak	100
Jardueraren berariazko aseguru	100
Anbulantzia, posta-zerbitzua...	100
Kartelak, programak, publizitatea	100
Sarrerak	100
Autobusak, 16 plazatik gorako garraio kolektiboa (alokairua)	100
Material suntsigarria	100
Ostatua, anoa-postuak	100
Garaikurrak, sariak	100
Material inbentariagarria	100

Ez dira diruz lagungarriak izango, puntuak kalkulatzeko helburuarekin soilik, ondorengoak:

- Otorduak, oro har.
- Joan-etorriak ibilgailu partikularretan.
- Ostata, irteera turistikoa edo antzekoak direnean.
- Kirol-ekipamenduak.
- Fakturekin justifikatu ezin diren gastuak (ikus justifikatzeko modua 12.2 artikuluan).

Kirol-elkarteentzat, dirulaguntzak banatzeko sistema fitxa-sistema finkoa izango da batetik, eta puntuazio-sistema bestetik. Lehenik, fitxen gastu finkoa ebaluatuko da, zenbateko hori aurrekontu-partida osoari kenduz eta gainerakoa ezarritako puntuazio-sistemaren arabera kirol-elkarteen artean banatuz:

Kirol federatuaren fitxa: 901,00 eurotik gora	30 euro fitxako
Kirol federatuaren fitxa: 900,00 eurotik behera	20 euro fitxako
Lizentziaren dirulaguntzari 10,00 euro gehituko zaizkio 14 urtetik aurrera kirol federatuan ari den emakume bati dagokionean	
Eskola-fitxa	10 euro kirolariko

## 9. Eskabideak aztertu eta ebaztea

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren aztertuko eta, hala badagokio, emango edo ukatuko dira dirulaguntzak.

### 9.1. Instrukzioa egiteko eta ebazpena emateko organo eskuduna.

Espedientea izapidetzeko organo eskuduna Kultura Arloko arduraduna izango da, arlo horretako arduradun politiko batekin batera.

Alkatetza izango da ebazteko organo eskuduna.

### 9.2. Azterketa eta ebazpena.

Teknikariek eta politikariek eskabideak aztertuko dituzte eta organo instrukzio-egileari lagunduko diote. Organo instrukzio-egilearen jarduerak honako hauek izango dira:

- Euskara eta berdintasun arloetako teknikariena eta Idazkaritza-Kontuhartzaitzarena, besteak beste, ebazteko beharrezkotzat jotzen diren txostenak eskatzea.

- Eskaerak ebaluatzea, balorazio-irizpide, -xede edo -lehentasunen arabera eginda. Irizpide, xede edo lehentasun horiek kontuan hartuko dituzte deialdiaren helburu orokorrak eta oinarri hauetan zehazten diren eskatzaile bakoitzaren helburu espezifikoak.

Eskabideak ebaluatu ondoren, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1 artikulua betez oinarri arautzaileak ezarri dituen kide anitzeko organoari bidaliko zaio espedientea, eta organo horrek eskabideei buruzko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organok behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta interesdunei jakinaraziko zaie, alegazioak aurkezteko hamar eguneko epean.

Entzunaldiaren izapidea alde batera utzi ahal izango da, prozeduran interesdunek azaldutako egitate, alegazio eta frogak besterik agertzen ez direnean eta kontuan hartzen ez direnean. Kasu horretan, egindako ebazpen-proposamena behin betikoa izango da.

Ebazpen-proposamenak honako hauek jaso beharko ditu gutxienez: diruz lagundu daitekeen proiektua, zenbatekoa, lortutako puntuak eta justifikatzeko epea.

Behin betiko ebazpen-proposamena kide anitzeko organoak eta Alkatetzak emango dute, dirulaguntza ematea behin betiko onartuko duen ebazpen arrazoitu bidez.

Eskabidean, gutxienez, eskatzailearen izena edo dirulaguntza jasoko duten eskatzaileen zerrenda jaso beharko da, eta gainerako eskabideen ezespena.

Era berean, ebazpenean interesdunei jakinaraziko zaizkie ebazpenaren aurka jar daitezkeen errekurtsioak, bai eta zein organo judizialean aurkeztu behar diren eta zein epetan aurkeztu behar diren ere. Hala ere, interesdunek egoki iriztitako beste edozein errekurtsio aurkez dezakete.

Ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita, eta epe horren barruan ebazpenik eta jakinarazpenik ematen ez bada, ezetsi egingo dira.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazten denetik bi hilabeteko epean.

Zuzenean aurkaratzen ez bada, aukerako errekurtsioa jarri ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

#### **10. Dirulaguntza ordaintzea**

Dirulaguntza honela ordaindu ahal izango da:

1. Urteko programetan, dirulaguntzaren ehuneko 75 arteko ordainketa aurreratuak egiteko aukera ezartzen da.

2. Ezohiko programetarako eta unean uneko jardueretarako, jarduera amaitu ondoren egindako jardueraren memoria eta justifikazioa aurkeztu ondoren ordainduko da dirulaguntza, dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako gehieneko epean.

3. Dirulaguntzaren ordainketa alde aurretik egin ahal izango da, onuradunak jarduera garatzeko ezinbesteko finantzaketa izanez gero, 12. oinarrian ezarritako baldintzetan egin behar duen justifikazioa egin aurretik.

#### **11. Justifikatzeko epea**

Dirulaguntzen erakunde onuradunek dirulaguntza emateko ebazpenean adierazitako eguna baino lehen justifikatu beharko dute eskaera, eta, nolahi ere, indarrean dagoen ekitaldiko irailaren 1a baino lehen.

## 12. Erakunde onuradunek aurkeztu beharreko dokumentazioa

1) Diruz lagundutako proiektu edo programa bakoitzeko memoria-likidazioa (Udalak emandako ereduaren arabera), datu hauekin:

- Egindako jarduerak.
- Denboralizazioa (datak/ordutegia).
- Parte-hartzaileak. Sexuaren arabera bereizita.
- Helburuak eta balorazioa.

– Jarduerak eragindako diru-sarrera eta gastu guztien balantzea, sinatuta. Diru-sarreraren zerrendan edozein kontzepturengatik lortutakoak sartu beharko dira, bai elkartekideen kuote-tatik, laguntza ekonomikoetatik, publikoetatik edo pribatuetatik, bai beste edozein pertzepzio ekonomikotatik (hala nola salmenta materiala, zozketak...).

2) Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteagatik sortutako gastuen egiaztagiriak: faktura edo gastuaren beste egiaztagiri batzuk (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak), gutxienez jasotako dirulaguntzaren zati proportzionalari dagokion gastua batuz.

Gastuen justifikazio gisa ez dira onartuko honako datu hauek argi identifikatuta ez dituzten ordainagiriak, fakturak, tiketak eta abar:

- Erakunde jaulkitzailea, bere izena edo sozietatearen izena eta NAN edo IFZ.
- Erakunde hartzailea, izen soziala eta IFZ (dirulaguntzaren erakunde onuradunarekin bat etorri behar du).
- Gastuaren xedea.
- Data.
- BEZa: aplikatutako zerga-mota (k).

Gastuen frogagiriak formularioko kontzeptu bakoitzaren arabera antolatu eta taldekatu beharko dira.

3) Zinpeko aitortpena, edozein administrazio, organismo edo erakunde publikok helburu bererako emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso diren ala ez adierazten duena. Beste dirulaguntzaren bat lortu bada, jasotako zenbatekoa eta administrazio emailea adierazi beharko dira, eta datu horiek egiazkoak direla egiaztatzen duen egiaztagiria ere aurkeztu beharko da.

4) Diruz lagundutako jardueraren programen, kartelen eta publizitate-elementuen aleak.

## 13. Erakunde onuradunaren betebeharrak. Dirulaguntza galtzea

Dirulaguntza jasotzen duen erakundeak nahitaez gauzatu beharko du aurkeztutako proiektua, eta deialdi honetan ezarritako xedapenak bete beharko ditu, bai eta dirulaguntzak arautzen dituen udal-ordenantzan agindutakoa ere.

Zehazki, erakunde eskatzaileari gogorarazten zaio diruz lagundutako jarduera dela-eta egiten diren sustapen-elementuetan eta karteletan, testuetan edo dokumentuetan (Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko dira) Zuiako Udalaren babesletza aipatu beharko dela.

Gainera, haurrak eta gazteak talde objektibo gisa dituzten elkarte, kultur, kirol eta/edo gizarte elkarteek antolatutako programak eta jarduerak euskaraz egin beharko dira, ahoz zein idatziz. Salbuespenak egin behar badira, euskara-zerbitzuari zuzendutako txosten baten bidez justifikatu beharko da.

Erakunde onuradunek deialdi honetan emandako dirulaguntzak galdu ahal izango dituzte, espedientea ireki ondoren, honako kasu hauetan:

- Eskabidean eta aurkeztutako dokumentazioan emandako datuak faltsutu izana.
- Berariazko errekerimenduaren aurrean dokumentazioa aurkezteko epea amaitu eta dokumentazioa aurkezten ez denean.
- Oro har, oinarri hauetan edo dirulaguntza ematean ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea.
- Dirulaguntza galduz gero, jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dira, transferentzia bidez, Zuiako Udalaren kontura. Erakunde batek ez badu bere borondatez itzultzen eskatutako kopurua, ez du Udalaren dirulaguntzarik jasoko, eta Udalak kopuru horiek itzuli ahal izango ditu.

#### 14. Dirulaguntza aldatzea

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, betiere, dirulaguntza-aren helburua bete dela ulertzen bada, dirulaguntza aldatu ahal izango da, horretarako ebazpena eman ondoren. Ebazpen horretan, dirulaguntza-aren zenbatekoa egokitu egingo da, eta, behar izanez gero, gutxitu.

#### 15. Dirulaguntzen bateragarritasuna

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste edozein dirulaguntza edo laguntzarekin.

Udal honek emandako dirulaguntza-aren zenbatekoa, bakarrik edo beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batek emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, ezin izango da izan erakunde onuradunak garatutako jardueraren kostua baino handiagoa.

#### 16. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioari buruz sortzen den edozein zalantza Alkateak ebaziko du, dagokion informazio-batzordeak eta teknikariek txostena egin ondoren.

#### 17. Arau-hausteak eta zehapenak

Dirulaguntza-aren arloko arau-hauste administratiboak izango dira dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorraren IV. kapituluaren definitutako ekintzak eta ez-egiteak, eta bertan ezarritako prozeduraren arabera zehatuko dira.

#### 18. Legeria osagarria

Oinarri hauetan aurreikusten ez denerako, Zuiako Udalaren dirulaguntzak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza orokorrean eta Lege eta Araudi Orokorrean xedatutakoa beteko da.

#### 19. Esleitzeko prozedura

Dirulaguntza-aren ebazpenean elkarrekin bakoitzak jasoko dituen puntuak adieraziko dira eta puntuaren balio zenbatetsia emango da. Elkarrekin esleipendunek gastuak justifikatzen dituztenean, puntuaren benetako balioa zehaztuko da.

Puntuaren baturaren ehuneko 75 aurreratu ahal izango da, puntuaren balio zenbatetsia kontuan hartuta.

Ondorengoak izango da puntuazioa, proiektu edo programen irizpideen eta balorazioaren arabera:

DEIALDIAREN URTEAN ERAKUNDEAK IZANDAKO PARTE HARTZE KOMUNITARIOA	PUNTUAK
Kultura-kontseiluan parte hartzen du	3
Udal programekin lankidetzan aritzen da: Olentzero, San Juan, bestelakoak. Zehaztu zein, eta nola	3

PROGRAMEN BAREMOAK	
PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUEN PERTSONA KOPURUA	PUNTUAK
10 parte-hartzaile arte	4
11 eta 25 parte-hartzaile artean	8
26 eta 40 parte-hartzaile artean	10
41 parte-hartzailetik gora	15
100 parte-hartzailetik gora	35

Parte-hartzearen baremoak puntuatuko du soilik programaren xede den biztanleriari edo biztanleria-sektoreari irekitako jardueretarako.

BERRIKUNTZA PROGRAMAN	PUNTUAK GEHIENEZ
Programa berritzailea	10
Programak aniztasuna eta/edo ingurumena lantzen ditu	6

EUSKARA	PUNTUAK
Helduentzako euskarazko programa (haur eta gazteentzako programek euskaraz izan behar dute nahitaez, 13. artikulua arabera) Programa berean jarduerak hizkuntza batean baino gehiagotan egiten badira, 0,5 puntu emango dira euskaraz egindako jarduerak bakoitzeko, eta gehienez 2 puntu emango dira	3
Euskararen aldeko sentsibilizazioan, euskararen erabileran edo hizkuntza-ohituretan eragina duten jarduerak eta edukiak planifikatzea. Proposatutako jarduerak helburu horiekin zenbateraino bat datozen justifikatu behar da	6

GENERO IKUSPEGIA	PUNTUAK
Genero-estereotipoak eta -rolak haustea sustatzen duten eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten jarduerak	3
Genero-ikuspegitik egindako azterketa bat barne hartzen duten programak eta programa horretan jasotako ekintzak planifikatzea, analisisian atzemandako desberdintasunak ezabatzen laguntzeko	6

PROGRAMAREN IRAUPENA	PUNTUAK
5 egunetik beherako jarduera	5
5-20 egun artean	10
21-125 egun artean	20
126-300 egun artean	60
300 egunetik gora	70

PROGRAMAREN AUTOFINANTZAZIOA	PUNTUAK
0 eta 1.000 euro artean	10
1.001 eta 3.000 euro artean	20
3.001 eta 6.000 euro artean	40
6.000 eurotik gora	70

PROGRAMAN KONPUTAGARRIAK DIREN GASTUAK	PUNTUAK
1 eta 1.500 euro artean	8
1.501 eta 3.000 euro artean	15
3.001 eta 4.500 euro artean	25
4.501 eta 6.000 euro artean	32
6.001 eta 8.000 euro artean	42
8.001 eta 10.000 euro artean	55
10.001 eta 12.500 euro artean	70
12.501 eurotik gora	80
20.000 eurotik gora	90



AYUNTAMIENTO DE ZUIA  
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA  
MURGIA (ARABA)

**BESTE IRIZPIDE PUNTUAGARRI BATZUK**  
OTROS CRITERIOS PUNTUABLES

EUSKARA	BAI/SI		EZ/NO
<p><b>Helduentzako euskarazko programa</b></p> <p>(haur eta gazteentzako programek euskaraz izan behar dute nahitaez, 13. artikulua arabera)</p> <p><b>Programa berean jarduerak hizkuntza batean baino gehiagotan egiten badira, 0,5 puntu emango dira euskaraz egindako jarduerak bakoitzeko, eta gehienez 2 puntu emango dira.</b></p> <p>Programa en euskera dirigido a población adulta</p> <p>(los programas dirigidos a población infantil y juvenil tienen que ser obligatoriamente en euskera, según el artículo 13)</p> <p>En caso de que en un mismo programa se contemplen actividades en varios idiomas, se otorgará 0,5 puntos por actividad desarrollada en euskera hasta un máximo de 2 puntos.</p>			
<p><b>Euskararen aldeko sentsibilizazioan, euskararen erabileran edo hizkuntza-ohituretan eragina duten jarduerak eta edukiak planifikatzea. Proposatutako jarduerak helburu horiekin zenbateraino bat datozen justifikatu behar da.</b></p> <p>Planificación de actividades y contenidos que incidan en la sensibilización a favor del euskera, en su uso o influyan en los hábitos lingüísticos. Debe justificarse en qué medida las actividades propuestas se corresponden con dichos objetivos.</p>			
<p><b>Begiraleentzako euskarazko prestakuntza-ikastaroa egitea</b></p> <p>Curso formativo de euskara para monitorado</p>			
<b>FITXAK</b>	<b>NESKAK</b>	<b>NESKAK</b>	<b>MUTILAK</b>
FICHAS	(-14 urte)	(+14 urte)	
<b>Federazio fitxen kopurua</b> - Nº fichas federativas			
<b>Eskolako fitxen kopurua</b> - Nº fichas escolares			

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • 945 430005 • Fax: 945 430366  
✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.com

AYUNTAMIENTO DE ZUIA  
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA  
MURGIA (ARABA)

BERDINTASUNA IGUALDAD	
<p><b>Genero-estereotipoak eta -rolak haustea sustatzen duten eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten jarduerak.</b> Actividades que promuevan la ruptura de estereotipos y roles de género y fomenten la igualdad entre mujeres y hombres.</p>	
<p><b>Genero-ikuspegitik egindako azterketa bat barne hartzen duten programak eta programa horretan jasotako ekintzak planifikatzea, analisisan atzemandako desberdintasunak ezabatzen laguntzeko.</b> Planificación de programas que incluyan un análisis desde la perspectiva de género y las acciones contempladas en dicho programa contribuyan a la eliminación de las desigualdades detectadas en el análisis.</p>	
<p><b>Emakume entrenatzaileen kopurua</b> Nº de mujeres entrenadoras</p>	

ENTRENATZAILEAK ENTRENADORES/AS	ZENBAT? CUÁNTOS/AS?
<b>Titulaziorik gabe</b> Sin titulación	
<b>Gradu 0 edo eskolako-kirol entrenatzailea</b> Grado 0 o monitor de deporte escolar	
<b>Gradu 1</b> Grado 1	
<b>Gradu 2</b> Grado 2	
<b>Goi-mailako entrenatzailea</b> Entrenador/a superior	

BERRIKUNTZA / INNOVACIÓN	BAI/SI	EZ/NO
<b>Proiektu berritzailea da?</b> ¿Es un proyecto innovador?		
<b>Aniztasuna edota ingurumena lantzen ditu? Nola?</b> ¿Trabaja diversidad y/o medio ambiente? ¿Cómo?		

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • 945 430005 • Fax: 945 430366  
✉ azuia.general@gayto.alava.net • Web: www.zuia.com

AYUNTAMIENTO DE ZUIA  
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA  
MURGIA (ARABA)

PARTE HARTZEA / PARTICIPACIÓN	BAI/SI	EZ/NO
<b>Bileretan parte hartzen du?</b> ¿Participa en las reuniones?		
<b>Udal-jardueretan parte hartzen du?</b> ¿Participa en las actividades municipales?		

**Izena/Nombre:**

**Kargua/Cargo:**

**NAN/DNI:**

**Sinadura/Firma:**

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • 945 430005 • Fax: 945 430366  
✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.com



**Zuiako Udala**  
Ayuntamiento de Zuia

**ANEXO II - JUSTIFIKAZIOA**  
**KIROL EKINTZAK – ACTIVIDADES DEPORTIVAS**

**DIRUSARRERAK ETA GASTUAK/INGRESOS Y GASTOS**

<b>GASTU GUZTIAK/ GASTOS TOTALES</b>	
<b>GASTU KONPUTAGARRIAK / GASTOS COMPUTABLES</b>	<b>ZENBATEKOA IMPORTE</b>
<b>Arbitroak</b> Arbitros	
<b>Materialak</b> Materiales	
<b>Entrenatzaileak</b> Entrenadores	
<b>Federazio-gastuak</b> Gastos Federativos	
<b>Jardueraren berariazko segurua</b> Seguro específico de la actividad	
<b>Ambulantziak, medikuak, botikina...</b> Ambulancias, médicos, botiquín...	
<b>Lekua edo materiala alokatzea (zehaztu)</b> Alquiler de material o espacios (concretar)	
<b>TOTALA</b> TOTAL	
<b>GASTU EZ KONPUTAGARRIAK/ GASTOS NO COMPUTABLES</b>	<b>ZENBATEKOA/IMPORTE</b>
Kirol-ekipamenduak, joan-etorriak, janaria, ostatuak... Equipamientos deportivos, desplazamientos, comidas, hospedajes...	

**Izena/Nombre:**

**Kargua/Cargo:**

**NAN/DNI:**

**Sinadura/Firma:**

Udal plaza, 1 - Murgia - 01130 – ARABA  
945 430 005 - zuiakoudala@ayto.araba.eus



**Zuiako Udala**  
Ayuntamiento de Zuia

<b>DIRUSARREREN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE INGRESOS</b>	
<b>KONTZEPTUA/CONCEPTO</b>	<b>ZENBATEKOA/IMPORTE</b>
Bazkideen kuotak / Cuotas personas asociadas	
Ekintzeen kuotak (partehartzaileak) / Cuotas actividades (participantes)	
Beste batzuk / Otros	

<b>ESKATU EDO JASO AL DUZU XEDE BERBERARAKO BESTELAKO LAGUNTZARIK? (jaso badira, zenbatekoa azaldu)</b> ¿HAS SOLICITADO O RECIBIDO OTRAS AYUDAS PARA EL MISMO FIN? (si se han recibido, especificar importe)	
<input type="checkbox"/> <b>BAI/SI</b>	<input type="checkbox"/> <b>EZ/NO</b>
<b>ADMINISTRAZIOA EDO EMPRESA /ADMINISTRACIÓN O EMPRESA</b>	<b>ZENBATEKOA/IMPORTE</b>

**Izena/Nombre:**

**Kargua/Cargo:**

**NAN/DNI:**

**Sinadura/Firma:**

Udal plaza, 1 - Murgia - 01130 – ARABA  
945 430 005 - zuiakoudala@ayto.araba.eus



AYUNTAMIENTO DE ZUIA  
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA  
MURGIA (ARABA)

**BESTE IRIZPIDE PUNTUAGARRI BATZUK  
OTROS CRITERIOS PUNTUABLES**

EUSKARA	BAI SI	EZ NO
<p><b>Euskarazko programa helduei zuzuenduta (haur eta gazteentzako programak euskaraz izan behar dute nahitaez, 13. artikulua arabera)</b></p> <p><b>Programa berean jarduerak hizkuntza batean baino gehiagotan egiten badira, 0,5 puntu emango dira euskaraz egindako jarduerak bakoitzeko, eta gehienez 2 puntu emango dira</b></p> <p>Programa en euskera dirigido a población adulta (los programas dirigidos a población infantil y juvenil tienen que ser obligatoriamente en euskera, según el artículo 13)</p> <p>En caso de que en un mismo programa se contemplen actividades en varios idiomas, se otorgará 0,5 puntos por actividad desarrollada en euskera hasta un máximo de 2 puntos.</p>		
<p><b>Euskararen aldeko sentsibilizazioan, euskararen erabileran edo hizkuntza-ohituretan eragina duten jarduerak eta edukiak planifikatzea. Proposatutako jarduerak helburu horiekin zentzuzkoak izan behar dira</b></p> <p>Planificación de actividades y contenidos que incidan en la sensibilización a favor del euskera, en su uso o influyan en los hábitos lingüísticos. Debe justificarse en qué medida las actividades propuestas se corresponden con dichos objetivos.</p>		

BERDINTASUNA / IGUALDAD	
<p><b>Genero-estereotipoak eta -rolak haustea sustatzen duten eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen duten jarduerak</b></p> <p>Actividades que promuevan la ruptura de estereotipos y roles de género y fomenten la igualdad entre mujeres y hombres.</p>	
<p><b>Genero-ikuspegitik egindako azterketa bat barne hartzen duten programak eta programa horretan jasotako ekintzak planifikatzea, analisisan atzemandako desberdintasunak ezabatzen laguntzeko</b></p> <p>Planificación de programas que incluyan un análisis desde la perspectiva de género y las acciones contempladas en dicho programa contribuyan a la eliminación de las desigualdades detectadas en el análisis.</p>	

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • 945 430005 • Fax: 945 430366  
✉ azuia.general@gayto.alava.net • Web: www.zuia.com

AYUNTAMIENTO DE ZUIA  
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA  
MURGIA (ARABA)

BERRIKUNTZA / INNOVACIÓN	BAI/SI	EZ/NO
<b>Proiektu berritzailea da?</b> ¿Es un proyecto innovador?		
<b>Aniztasuna eta ingurumena lantzen ditu? Nola?</b> ¿Trabaja diversidad y/o medio ambiente? ¿Cómo?		

PARTE HARTZEA / PARTICIPACIÓN	BAI/SI	EZ/NO
<b>Bileretan parte hartzen du?</b> ¿Participa en las reuniones?		
<b>Udal-jardueretan parte hartzen du?</b> ¿Participa en las actividades municipales?		

**Izena/Nombre:**

**Kargua/Cargo:**

**NAN/DNI:**

**Sinadura/Firma:**

Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • 945 430005 • Fax: 945 430366  
✉ azuia.general@ayto.alava.net • Web: www.zuia.com



**Zuiako Udala**  
Ayuntamiento de Zuia

**ANEXO IV**  
**KULTUR EKINTZAK – ACTIVIDADES CULTURALES**

**DIRUSARRERAK ETA GASTUAK/INGRESOS Y GASTOS**

<b>GASTU GUZTIAK / GASTOS TOTALES</b>	
<b>GASTU KONPUTAGARRIAK / GASTOS COMPUTABLES</b>	<b>ZENBATEKOA IMPORTE</b>
<b>Monitoreak, gidariak, hizlariak</b> Monitores, guías, ponentes	
<b>Lekua edo materiala alokatzea (zehaztu)</b> Alquiler de material o espacios (concretar)	
<b>Erakusketak, ekitaldiak...</b> Exposiciones, actuaciones...	
<b>Argitalpenak (liburuak, aldizkariak...)</b> Publicaciones (libros, revistas..)	
<b>Jardueraren berariazko segurua</b> Seguro específico de la actividad	
<b>Sarrerak</b> Entradas	
<b>Material suntsikorra</b> Material fungible	
<b>Garaikurrak, autobusak, taldeko garraioaren alokairua</b> Trofeos, premios, autobuses, alquiler transporte colectivo	
<b>Kartelak, programak, publizitatea</b> Cartelería, programas, publicidad	
<b>TOTALA</b> TOTAL	
<b>GASTU EZ KONPUTAGARRIAK / GASTOS NO COMPUTABLES</b>	<b>ZENBATEKOA/IMPORTE</b>
Joan-etorriak, janaria, ostatuak... Desplazamientos, comidas, hospedajes...	

**Izena/Nombre:**

**Kargua/Cargo:**

**NAN/DNI:**

**Sinadura/Firma:**

Udal plaza, 1 - Murgia - 01130 – ARABA  
945 430 005 - zuiakoudala@ayto.araba.eus



**Zuiako Udala**  
Ayuntamiento de Zuia

<b>DIRUSARREREN AURREKONTUA / PRESUPUESTO DE INGRESOS</b>	
<b>KONTZEPTUA/CONCEPTO</b>	<b>ZENBATEKOA/IMPORTE</b>
Bazkideen kuotak / Cuotas personas asociadas	
Ekintzeen kuotak (partehartzaileak) / Cuotas actividades (participantes)	
Beste batzuk / Otros	

<b>ESKATU EDO JASO AL DUZU XEDE BERBERARAKO BESTELAKO LAGUNTZARIK? (jaso badira, zenbatekoa azaldu)</b> ¿HAS SOLICITADO O RECIBIDO OTRAS AYUDAS PARA EL MISMO FIN? (si se han recibido, especificar importe)	
<input type="checkbox"/> BAI/SI	<input type="checkbox"/> /NO
<b>ADMINISTRAZIOA EDO EMPRESA /ADMINISTRACIÓN O EMPRESA</b>	<b>ZENBATEKOA/IMPORTE</b>

**Izena/Nombre:**

**Kargua/Cargo:**

**NAN/DNI:**

**Sinadura/Firma:**

Udal plaza, 1 - Murgia - 01130 – ARABA  
945 430 005 - zuiakoudala@ayto.araba.eus

AYUNTAMIENTO DE ZUIA  
MURGIA (ALAVA)



ZUIAKO UDALA  
MURGIA (ARABA)

**Kultura, kirol, eta gizarte elkarteak - Diru laguntza eskabidea**  
Asociaciones culturales, deportivas y sociales - Solicitud de subvención


Elkartea/ Asociación		IFK/ CIF
Helbidea/ Domicilio		Herria/ Población
		PK/ CP
E-mail	Telefonoa	Bazkide kopurua / Nº de socios/as
Banketxea/ Banco	Kontu korrontearen zenbakia / Número de cuenta corriente	
Izen-deiturak (ordezkaria)/ Nombre y apellidos (representante)		NAN-AIZ/ DNI-NIE
Bazkideen %50a Zuian erroldatuta dago? / ¿El 50% de las personas asociadas están empadronadas en Zuiá?		
Bai/ Sí <input type="checkbox"/> Ez/No <input type="checkbox"/>		
Bazkide kopurua? / ¿Nº de personas asociadas?		
Zenbat emakume daude elkarteetan? / ¿Cuántas mujeres hay en la asociación?		
Eskatu edo jaso al duzu xede berberarako bestelako laguntzarik? (jaso badira, zenbatekoa azaldu): ¿Has solicitado o recibido otras ayudas para el mismo fin? (si se han recibido, especificar importe):		
<input type="checkbox"/> Bai, zehaztu zenbatekoa / Si, especificar importe <input type="checkbox"/> Ez dut jaso edo eskatu/No he recibido ni solicitado ninguna		
Administrazio edo enpresa /Administración o empresa		Zenbatekoa / Importe
Baimena ematen diot espresuki Zuiako Udalari sektore publikoko edozein entitatetik beharrezkoak diren datuak zuzenean jasotzeko, haiekin egiazta dezan izenburuan agertzen den diru laguntza eskatzeko baldintza guztiak betetzen direla.		Autorizo expresamente al Ayuntamiento de Zuiá para recabar directamente de cualquier entidad perteneciente al sector público los datos necesarios para acreditar el cumplimiento de las condiciones requeridas para la solicitud de subvención indicada en el título de este impreso.
<input type="checkbox"/> Bai <input type="checkbox"/> Ez		<input type="checkbox"/> Sí <input type="checkbox"/> No
*Ezekoan, aipaturako dokumentazioa aurkeztu beharko da.		*En caso negativo se deberá aportar tal documentación.
Elkarte honek Zuiako Udalak deitutako bileretan parte hartzen duela adierazten dut. <input type="checkbox"/>	Declaro bajo mi responsabilidad que esta asociación participa en las reuniones convocadas por el Ayuntamiento de Zuiá <input type="checkbox"/>	
Diru-laguntzei buruzko azaroaren 2003 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. Artikuluko baldintzak betetzen ditudala adierazten dut. <input type="checkbox"/>	Declaro que cumplo los requisitos del art.13 de la Ley General de Subvenciones 38/2003, de 17 de noviembre de 2003 <input type="checkbox"/>	
Nire erantzukizunpean adierazten dut goian azalduko datuak egiazkoa direla. <input type="checkbox"/>	Declaro bajo mi responsabilidad que los datos indicados arriba son ciertos <input type="checkbox"/>	
<b>Aurkezten den dokumentazioa</b>	<b>Documentación que se presenta</b>	
Kirola – I. eranskina <input type="checkbox"/> II. eranskina <input type="checkbox"/>	Deporte – Anexo I <input type="checkbox"/> Anexo II <input type="checkbox"/>	
Kultura – III. eranskina <input type="checkbox"/> IV. eranskina <input type="checkbox"/>	Cultura – Anexo III <input type="checkbox"/> Anexo IV <input type="checkbox"/>	
Beste – V. eranskina <input type="checkbox"/> VI. eranskina <input type="checkbox"/>	Otro – Anexo V <input type="checkbox"/> Anexo VI <input type="checkbox"/>	
Memoria <input type="checkbox"/>	Memoria <input type="checkbox"/>	

Sinadura / Firma

Data /Fecha

Udal plaza, 1  
Murgia - ZUIA  
01130 ARABA

945 430 005  
<http://www.zuia.eus/>  
[zuiakoudale@ayto.araba.eus](mailto:zuiakoudale@ayto.araba.eus)

AYUNTAMIENTO DE ZUIA MURGIA (ALAVA)				ZUIAKO UDALA MURGIA (ARABA)	
Datu babesari buruzko informazioa			Información adicional protección de datos		
Tratamenduaren arduraduna			Responsable del tratamiento		
<b>Identitatea:</b> Zuiako Udala – IFZ P0107200H <b>Helbidea:</b> Udal plaza, 1 – 01130 Murgia (Araba) <b>Telefonoa:</b> 945 430 005 <b>E-mail:</b> <a href="mailto:zuiakoudala@ayto.araba.eus">zuiakoudala@ayto.araba.eus</a> <b>Datuen Babesaren Ordezkarria:</b> <a href="mailto:azuia.dbo@ayto.araba.eus">azuia.dbo@ayto.araba.eus</a>			<b>Identidad:</b> Ayuntamiento de Zuia – NIF P0107200H <b>Dirección:</b> Plaza del ayuntamiento, 1 – 01130 Murgia (Álava) <b>Teléfono:</b> 945 430 005 <b>E-mail:</b> <a href="mailto:zuiakoudala@ayto.araba.eus">zuiakoudala@ayto.araba.eus</a> <b>Delegado/a Protección de Datos:</b> <a href="mailto:azuia.dbo@ayto.araba.eus">azuia.dbo@ayto.araba.eus</a>		
Tratamenduaren xedea			Finalidad del tratamiento		
<b>Helburua:</b> Eskatutako diru-laguntzei dagokien informazio pertsonalaren kudeaketa. <b>Gordetzeko epeak:</b> Subentzioen espedienteak Diru-laguntzaren deialdiko espedientearen kontserbazio iraunkorra Urte 1 ukatutako banakako espedientetarako eta 8 urte diru-laguntza onartutako espedientetarako.			<b>Finalidad:</b> Gestión de la información personal relativa a la concesión de subvenciones solicitadas. <b>Plazos de conservación:</b> Expedientes de subvenciones Conservación permanente del expediente de convocatoria de subvención. 1 año para expedientes individuales denegados y 8 años para expedientes concedidos.		
Legitimazioa			Legitimación		
Botere publikoaren egikaritzea DBEOren 6.1.e) artikulua 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Diru-Laguntzei buruzko Lege Orokorra 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21koa, Diru Laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrenaren Erregelamendua onartzen duena			Ejercicio de la potestad pública: art. 6.1.e) RGPD Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones		
Hartzaileak			Personas destinatarias		
Legeak ezarritakoak eta tratamendu honen esparruan aplikagarri direnak.			Las establecidas legalmente y que sean de aplicación en el ámbito de este tratamiento.		
Eskubideak			Derechos		
Interesdunek honako eskubide hauek dituzte: <ul style="list-style-type: none"> <li>Zuiako Udala interesdunen datu pertsonalak tratatzenari den ala ez dioen baieztapena jasotzeko eskubidea.</li> <li>Haien datu pertsonaletara sarbide izateko, okerrak diren datuen zuzenketa eskatzeko, edo, kasuan kasu, ezabatze eskubidea, datuak jaso ziren beharriazentarako jada beharrezkoak ez direnean.</li> </ul> Egoera jakin batzuetan honako hauek eskatzeko: <ul style="list-style-type: none"> <li>Datuen tratamendua mugatzea. Kasu horretan, Zuiako Udalak erreklamazioen aurrean defendatzeko edo haiek egikaritzeko gordeko dituzoliek.</li> <li>Datuen tratamenduaren aurka egitea. Kasu horretan, Zuiako Udalak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta arrazoi legítimo larriak baldin badaude edo erreklamazio posibleen defentsa edo egikaritzea badago. Banakako erabaki automatizatuarentarako datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere erabil dezake.</li> </ul> Eskubide horiek Zuiako Udalaren aurrean egikaritu ahal izango dira. Helbidea: Udal plaza, 1- 01130 Murgia (Araba). Eskubideen egikaritzan behar den arreta jaso ez bada, Datuen Babesarako Euskal Bulegoaren aurrean erreklamazioa jarri ahal izango da. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea, 71 - 3. solairua - 01008 Vitoria-Gasteiz.			Las personas afectadas tienen derecho a: <ul style="list-style-type: none"> <li>Obtener confirmación sobre si el Ayuntamiento de Zuia está tratando sus datos personales.</li> <li>Acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar la supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no sean necesarios para las finalidades para las cuales fueron recabados.</li> </ul> Solicitar en determinadas circunstancias: <ul style="list-style-type: none"> <li>La limitación del tratamiento de sus datos, en cuyo caso sólo serán conservados para el ejercicio o la defensa de reclamaciones.</li> <li>La oposición al tratamiento de sus datos, en cuyo caso, el Ayuntamiento de Zuia dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Incluido el tratamiento de sus datos para decisiones individuales automatizadas.</li> </ul> Los derechos podrán ejercerse ante el Ayuntamiento de Zuia – C/ Plaza del ayuntamiento, 1 – 01130 Murgia (Álava) Si en el ejercicio de sus derechos no ha sido debidamente atendida o atendido, podrá presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dirección: C/ Beato Tomás de Zumárraga, 71 – 3ª planta - 01008 Vitoria-Gasteiz.		
Udal plaza, 1 Murgia - ZUIA 01130 ARABA			945 430 005 <a href="http://www.zuia.eus/">http://www.zuia.eus/</a> <a href="mailto:zuiakoudala@ayto.araba.eus">zuiakoudala@ayto.araba.eus</a>		